



Gobernantza, Administrazio Digital eta  
Autogobernu Saila  
Juridikoaren Sailburuordetza

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako  
Zuzendaritza

Gobernanza, Administración Digital  
y Autogobierno  
Viceconsejería de Régimen Jurídico

Dirección de Desarrollo Legislativo y  
Control Normativo

## LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN (KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN BIDEZ) ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAREN ARTEKO EITB-REN IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO ZERBITZUEI BURUZKO LANKIDETZA- HITZARMENARI BURUZKOA

58/2024 LT – LGAKZ  
NBNC\_CCO\_4287/24\_11

### I. AURREKARIAK

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak goiburuan adierazitako hitzarmen-proiektuari buruzko legezketasun-txostena emateko eskatu dio, Lege Garapen eta Arau Kontroleko Zuzendaritzari.

Txostenaren eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau helarazi da:

- Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren kabinete eta gizarte hedabideen zuzendariak sinatutako justifikazio memoria.
- Hitzarmenaren zirriborroa.
- Gobernu kontseiluaren akordio-proposamena.

Txosten hau egin da Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (aurrerantzean, 144/2017 Dekretua); bi artikuluko horiek lotuta daude Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren Ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9.1 i) artikuluekin eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 14.1.a) artikuluekin, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura berria arautzen duen dekretua onartu bitartean azken hau izango baita aplikagarri.

Donostia kalea, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ  
Tel.: 945 01 86 30 – Faxa: 945 01 87 03



## II. IZAPIDETZEA

Lehenik eta behin, adierazi behar da 144/2017 Dekretuaren 13.1.b) artikulua jasotzen dituela Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren nahitaezko legezketasun-txostena behar duten gaiak:

*13. artikulua.– Legezketasunari buruzko txostenak egitea Eusko Jaurlaritzak izenpetutako*

*hitzarmenak edo erabakiak onartzeko prozeduren barruan.*

*1.– Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio nahitaezko legezketasun-txostena egitea hitzarmen-proiektuak direnean, dirulaguntzetakoak barne, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek edo erakunde instituzionalek izenpetu behar badituzte beste hauekin:*

*..*

*b) Beste administrazio publiko batzuk eta horiei lotuta edo horien mende dauden zuzenbide publikoko erakundeak..*

Kasu honetan, nahiz eta 2016tik indarrean baden Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko hitzarmen bat, EITBko seinalea Nafarroan zabaltzea ahalbidetzen duena, 2016. urteko hitzarmen hau berritu eta sendotzea denez oraingoaren helburuetako bat, ez geundeke 144/2017 dekretuak 13.5 artikuluan ezarritako salbuespenen artean, eta beraz, legezketasun txosten hau egitea beharrezkoa dela iritzi dut.

Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio orokorrak eta Nafarroako Foru komunitatearen arteko hitzarmena denez, hau da, beste administrazio publiko batekin sinatu beharreko hitzarmena, Eusko Jaurlaritzari dagokio hitzarmena sinatzeko onarpena ematea, 144/2017 Dekretuaren 55.1 b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, 144/2017 Dekretuaren 57.1 artikulua adierazten duenez, Eusko Jaurlaritzak alde aurretik onartu edo berretsi behar dituen hitzarmenak, organo horren aurrean izapidetzeko ezarritako arauen arabera izapidetuko dira, eta espediente osoa igorri beharko da. Ondorioz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabaki-proposamena bera ere badago espedientean, eta bertan jasotzen da hitzarmena izenpetzeko baimen orokorra, eta sinatzeko baimena ematen zaio lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, 144/2017 dekretuaren 62.1 artikulua ezarritakoarekin bat.

Hau honela, hitzarmenaren izapidetzan jadanik egindako nahitaezko izapideak bete dira: justifikazio memoria idatzi eta sinatu da (144/2017 dekretuaren 13.3 artikulua), hitzarmenaren testua bai gaztelaniaz bai euskaraz igorri zaio zuzendaritza honi (144/2017 dekretuaren 13.3 eta 57.3 artikulua) eta gobernu kontseiluaren erabaki proposamena espedientean bertan dago elebitan.

Saileko txosten juridikoak adierazten duen moduan, legezkotasun txosten honen ondoren, aztertutako hitzarmenaren izapidetzeak Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena exijitzen du; izan ere, hitzarmen honek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiarentzako betebeharrak sortzen dituelako, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren artikulua bakarraren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 21.2 artikuluan ezarritakoaren arabera (2/2017 Legegintzako Dekretua, kontrol ekonomiko-fiskalaren xedea eta aplikazio-eremua arautzen dituena):

*Lege honen ondorioetarako, jarduera ekonomikotzat joko dira ekintza administratibo guztiak, bai eta fondoan eta baloreen mugimenduan edo EAEko Ogasun Nagusian eskubideak eta betebeharrak sor ditzaketen garrantzia ekonomikoko gertaerak eta eragiketak ere.*

Honen ondoren, jarraitu beharreko izapide hauek aurreikusten ditu saileko txosten juridikoak:

- Jaurlaritzaren gobernu kontseiluaren alde aurretiko onarpena (144/2017 dekretuaren 55.1 artikulua).
- Eusko legebiltzarrari hitzarmena sinatzeko Jaurlaritzaren baimena komunikatzea, eta eusko legebiltzarraren baimen ematea (144/2017 dekretuaren 59 artikulua eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 224 artikulua).
- Espainiako Gorte Nagusiei hitzarmenaren berri ematea indarrean sartu aurretik (EHAEn 22.1 artikulua, KEren 145.2 artikulua eta 144/2017 dekretuaren 60. Artikulua).

Aipatzekoa da, saileko txosten juridikoak egiten duen bezala, hitzarmen indarrean sartu aurretik eta behin eusko Legebiltzarraren baimena izanda egin beharko dela Espainiako Gorte Nagusiei hitzarmena helarazteko izapidea, eta izapide hau EHAEn 22.1 artikuluan xedatutakoa izango dela.

Guzti honen harira, uste dut, lehenago aipatutako ikus-entzunezko komunikazioaren Lege orokorrak 73.1.d) (IEKLO) artikuluan jasotako izapidea ez dela aurreikusi, egiteke dauden izapideen artean eta, honenbestez, iritzi dut, behin ituna sinatuta Espainiako Administrazio Orokorrari helarazi beharko zaiola, ituna eta era berean jakinarazi nor izango den jabari publiko erradioelektrikoa erreserbatzeagatik tasa ordaintzeko betebeharra duen subjektua. Azken betebeharrak hau, tasaren ordaintzearen subjektuarena, hitzarmenaren bosgarren klausulan jasota dago.

Era berean gogorarazi beharra dago 144/2017 Dekretuaren 66. artikulua azken izapide bat ezartzen duela, honela, hitzarmena bultzatu duen organoak, behin hitzarmena sinatuta, sinatutako hitzarmenaren kopiak bidali behar dizkio Jaurlaritzaren idazkaritzari. Azkenik, maiatzaren 12ko Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legearen 33.6 artikulua jarraituz, hitzarmena publikatu egin beharko da informazio ondorioetarako.

Hitzarmena sinatzeko ahalmenari dagokionez, Zerbitzu Juridikoa arautzen duen 144/2017 Dekretuaren 62. artikulua arabera, Lehendakaria da Autonomia Erkidegoaren izenean adostasuna eta hitzarmenak sinatzeko ahalmena duen agintaria, baina Eusko Jaurlaritzak berariaz eman diezaiolake ahalmena beste agintaritzari bati. Gauzak honela, gobernu kontseiluaren akordio proposamenean berariaz baimena ematen zaio, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuari.

### **III. LEGEZKOTASUNAREN AZTERKETA**

#### **1.- Justifikazioaren xedea.**

Espedientean dagoen justifikazio memoriak ezartzen duenaren arabera, lankidetzaren hitzarmenaren xede nagusia 2016tik indarrean dagoen lankidetzaren hitzarmena berritu eta indartzea da. Era berean, 2016tik indarrean dagoen hitzarmen honek ahalbidetu izan du Nafarroako Foru Komunitatean EITBren seinalea zabaltzea, honen guztiaren sustraietan, bi erkideen arteko harreman berezia, kidetasun historikoa, kulturala, linguistikoa, turistikoa eta soziokulturalaz gain, elkarren arteko lankidetzaren tradizio luzea dagoela dio justifikazio memoria honek.

Justifikazio juridikoari dagokionez bai memoriak, bai gobernu kontseiluaren akordio proposamenak ezartzen dute uztailearen 7ko 13/2022 Lege Orokorrak, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzkoak, 73.1 artikuluan berariaz aurreikusten duela honelako hitzarmenak sinatzeko ahalmena. Honez gain,

justifikazio memoriak dio administrazio publikoen arteko lankidetza Konstituzioan ezarritako Estatuaren lurralde-antolamenduaren muinean bertan dagoela zehaztuta, eta, horregatik, autonomia-erkidegoen arteko elkarlan- eta lankidetza-harremanak autonomien estatuaren esparru konstituzionalaren barruan daudela. Era beran, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 22.2 artikuluan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 70.2 artikuluan jasotzen dela erakunde bakoitzak honelako hitzarmenak sinatzeko duen lege ahalmena.

Eskuartean dugun gaiaren berezitasuna kontuan hartuta, justifikazio memoriak aipatzen duen moduan, garrantzitsua da azpimarratzea Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorrak, uztailaren 7ko 13/2022koak, berariaz aurreikusten duela honelako hitzarmenak sinatzeko aukera 73. artikuluan, honetarako zenbait baldintza ezarriz.

*“73. artikulua. Ikus-entzunezko komunikazioaren zerbitzu publikoa ematea dagokion autonomia-erkidegotik kanpo.*

*1. Autonomia-erkidego baten lurreko uhin hertziarren bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa beste autonomia-erkidego mugakide batean eman ahal izango da, hizkuntza- eta kultura-kidetasunak dituen, baldin eta aldi berean honako baldintza hauek betetzen badira:*

- a) Autonomia-erkidego interesdunek hitzarmen bat sinatzea.*
- b) Bi autonomia-erkidegoek zerbitzu publikoaren emaile bat badute, igorpenetan elkarrekikotasuna egon behar da.*
- c) Autonomia-erkidegoari esleitutako espektro irrati-elektroa erabiliz ematen denean zerbitzua, dagokion Plan Tekniko Nazionalaren arabera.*
- d) Estatuko Administrazio Orokorrari a) letran adierazitako hitzarmena sinatu dela jakinaraztea, eta jabari publiko erradioelektroa erreserbatzeagatiko tasa ordaintzeko betebeharra duen subjektua identifikatzea.*

*2. Autonomia-erkidego batek autonomia-erkidego mugakide batean ikus-entzunezko komunikazioaren zerbitzu publikoa emateak autonomiako zerbitzu publikoaren izaerari eutsiko dio.*

*3. Autonomia-eremuko ikus-entzunezko komunikazioaren zerbitzu publikoaren emaileek akordioak egin ahal izango dituzte beren artean eta Espainiako Irrati eta Telebista Korporazioarekin, edukiak batera ekoizteko edo editatzeko, edukien gaineko eskubideak eskuratzeko edo beste estaldura batzuetarako, beren jardueraren eraginkortasuna hobetzeko, lege honetan kate-emisorako ezarritako mugekin.”*

Artikulu hau oinarri hartuta, bi erkidegoen interesa da txosten honetan aztertzen ari garen hitzarmena sinatzea, aipatutako arrazoiak tarteko.

## **2.- Esku hartzen duten administrazio publikoen izaera eta eskumen-gaikuntza.**

Hitzarmenaren aldeak bi erkidego autonomo izanik, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako foru komunitatea, Espainiar Konstituzioaren eskumen banaketari erreparatu behar diogu, eskumen gaikuntza aztertzerako garaian. Honela, Espainiako Konstituzioaren 149.1.27º artikuluan oinarrituta, Euskal Herriko Autonomia Estatutua onartzen duen 1/1979 Lege Organikoak (EHAE), 19.3 artikuluan jasotzen du euskal erkidegoak bere telebista, irratia eta prentsa arautu, sortu eta mantentzeko duen ahalmena. Era berean, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak (NFEBH), abuztuaren 10ekoak, 55. artikuluan ere Nafarroako Foru Komunitatearen eskumena aurreikusten du bere telebista, prentsa arautu eta sortzekoa.

Hitzarmenak sinatzeko eskumenari dagokionez, EHAEren 22 artikulua lehen idatz-zatiak jasotzen du Autonomia Erkidegoak beste autonomia-erkidegoekin hitzarmenak sinatzeko ahalmena betiere beren bakarreko eskumeneko zerbitzu propioak kudeatu eta emateko.

Hitzarmenaren tramitazioa bultzatzen duen Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eskumenari dagokionez, onartu berri den ekainaren 23ko 18/2024, dekretuaren 6 artikuluan aurkitzen dugu hitzarmen honen tramitazioa bultzatzeko sailaren eskumen gaikuntza.

## **3.- Hitzarmenaren araubide juridikoa.**

Lankidetzeta-hitzarmenen araubidea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean (aurrerantzean, SPAJL), Atariko Tituluaren VI. kapituluaren jasotzen da, baita Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen (ESPL) II tituluaren IV kapituluaren zehazki txosten honen begirada pean jartzen den hitzarmena SPAJLren 47.2.a) artikuluan jasotako hitzarmenen artean kokatu genezake. Artikulu honek honelaxe dio:

*2. Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek sinatzen dituzten hitzarmenak honako mota hauetariko batekoak izango dira:*

a) *Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak, edo administrazio publiko diferenteei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak.*  
*Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko baten edo mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko.*

***Salbuetsita geratzen dira autonomia-erkidego bik edo gehiagok zerbitzu propioak kudeatu eta emateko euren artean sinatzen dituzten administrazio arteko hitzarmenak, autonomia bakoitzaren estatutuak xedatzen duena izango baitute arau hipotesi, betekizun eta baldintzei dagokienez.***

Azken paragrafoari begiratuz, esan dezakegu, txostenpean dugun hitzarmena bertan kokatzen dela, eta beraz hitzarmenaren betekizun eta baldintzak betetzen dituen edo ez aztertzeko autonomia estatutuak dioena bete beharko dela, eta ez SPAJL legean ezarritakoa. Honen harira, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, hauxe dio 22. artikulua lehena idatz-zatian:

*1.- Autonomia Erkidegoak hitzarmenak egin ditzake beste autonomia-erkidegoekin beren bakarreko eskumeneko zerbitzu propioak kudeatu eta emateko. Esandako hitzarmen horiek egiteko, Gorte Nagusiei jakinarazi behar zaie indarrean sartu aurretik. Gorte Nagusiek, ala Ganberaren batek, jakinarazpena hartu eta hogeita hamar egunen barruan eragozpenik azalduko balu, hitzarmenak artikulua honetako hirugarren paragrafoan aurreikusitako izapideak jarraitu beharko lituzke. Epe hori igaro eta gero, hitzarmenari eragozpenik azaldu ez bazaio, indarrean jarriko da.*

Edukiaren inguruan ezartzen duen baldintza bakarra hitzarmenaren xede den gaia erkidegoaren eskumenekoa izatea dela esan genezake, eta, kasu honetan, aurretiaz aztertu ahal izan dugun moduan, EAEren jardun eta eskumen esparruan kokatzen da.

SPAJLak berariaz honelako hitzarmenak bere aplikazio eremutik baztertzen dituen arren, kontuan izan behar da ESPLak ez duela honelako bazterketarik egiten, eta arestian aipatutako Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorrek zenbait baldintza berezi ezartzen dizkiela honelako itunei. SPAJLren 33 artikulua dio:

*33. artikulua. Lankidetzak-hitzarmenak.*



1.– *Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak elkarlanerako hitzarmenak sinatu ahal izango ditu gainerako administrazio publikoekin, nork bere eskumen-esparruan jokatzuz. Hala ere, Gobernu Kontseiluak baimendu edo onartu beharko ditu.*

2.– *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio instituzionaleko entitateek ere sinatu ahal izango dituzte artikulua honetan aipatzen diren elkarlanerako hitzarmenak beste administrazio publikoekin. Halakoetan, entitateei dagokien araubide juridikoaren arabera jokatu beharko dute. Hitzarmena sinatzeko arrazoen eta hitzarmenean ezartzen diren ebaluazio-adierazleen eta -irizpideen publikotasun aktiboa egin beharko da beti.*

3.– *Protokolo orokorra esango zaio hitzarmenari bere helburua hauetakoren bat denean: orientazio-jarraibideak ezartzea administrazio publiko bakoitzak jakiteko nola jokatu behar duen guztientzat interesgarriak diren gaietan edo esparru orokorra eta metodologia finkatzea eskumen-arlo partekatu batean edo bataren eta bestearen intereseko gai batean lankidetzan jarduteko.*

4.– *Hitzarmen-agiriekin honako hauek zehaztu beharko dituzte, hala dagokionean:*

a) *Zer organok sinatzen duten hitzarmena, eta zein gaitasun juridikoz diharduen alderdi bakoitzak.*

b) *Zein den administrazio bakoitzaren eskumena.*

c) *Nola finantzatzen den hitzarmena.*

d) *Zer jarduketa adostu diren.*

e) *Organizazio pertsonifikaturik behar den ala ez hitzarmena kudeatzeko.*

f) *Zein den hitzarmenaren indarraldia, eta aukerarik badagoen hura luzatzeko; aukerarik badago, zein den hitzarmena luzatzeko araubidea.*

g) *Hitzarmena azkentzea indarraldiaren amaiera ez den arrazoi bat dela kausa eta, azkenduz gero, indarrean dauden jarduketak ebazteko modua.*

5.– *Hitzarmen horietan, hitzarmena zaintzeko eta kontrolatzeko organo mistoak sortu ahal izango dira elkarlanerako hitzarmenak interpretatzerakoan eta betetzerakoan azal daitezkeen arazoak ebazteko.*

6.– *Indarrean dagoen hitzarmenen erregistroan eta hitzarmenetan parte hartzen duten organoen web-orrietan argitaratuko dira elkarlanerako hitzarmenak, iraunkortasunez eta irisgarri, horien berri emateko.*

Bestalde aipatutako ikus-entzunezko komunikazioaren Legeak 73. artikuluan ezartzen dituen baldintzak, txosten honen lehen zatian aipatu ditugunak, betetzen ote diren aztertu beharko litzateke, bai edukiaren inguruan baita prozeduraren inguruan ere, azterketa hori ondorengo ataletan azaltzen da.

#### **4.- Edukiaren azterketa.**

Edukiaren beraren azterketarekin hasi aurretik, adierazi behar da, txosten honen 3. atalean esan dudan bezala, SPAJLren aplikazio eremutik at egon



harren, ESPLren 33. artikuluan ezarritako gutxieneko edukia jaso behar dituztela hitzarmen guztiek, eta gaiaren berezitasuna ikusita, ikus entzunezko komunikazioaren Lege Orokorren 73. artikuluan jasotakoak baita ere.

Hori honela, esan dezakegu ez dagoela ez azalpen-zatian ez eta hitzarmenak dituen zortzi klausuletan legezkotasunaren ikuspegitik esanguratsuak izan daitezken ohartarezpenik, eta oro har esan daiteke ESPLren 33 artikuluan aurrikusitakoak betetzen dituela baita ikus entzunezko komunikazioaren lege orokorrean ezarritakoak.

Azalpen zatian, argitzen dira hitzarmenaren sinatzaileak, gaitasun juridikoa eta norberaren eskumena (ESPLren 33.4.a eta 33.4.b artikulua).

Lehen, bigarren eta hiurugarren klausuletan jasotzen dira xedea, lankidatzerako baldintzak eta modua (ESPLren 33.4.d artikulua).

Laugarrenean, hitzarmenaren elkarrekikotasun printzipioa jasotzen da (IEKLO 73.1.b artikulua).

Hitzarmenaren eduki ekonomiko eza bosgarren klausulan jasotzen da (ESPLren 33.4.c artikulua), baita tasa erradio-elektroa ordaintzeko betebeharra duen subjektua ezartzen da ere ( IEKLO 73.1.d artikulua).

Seigarrenean, garapen eta jarraipen batzordea (ESPL 33.4.e artikulua).

Zazpigarrenean, hitzarmenari aplikagarri zaion araubide juridikoa.

Zortzigarrenean, indarraldia eta eraginkortasuna arautzen dira, eta bederatzigarrenean hitzarmena luzatzeko, azkentzeko eta aldatzeko moduak (ESPL 33.4.f eta 33.4.g artikulua)

#### **IV. ONDORIOA**

Indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin bat datorrela iritzita, aldeko txostena ematen diogu Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko eitb-ren ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuei buruzko lankidetzak-hitzarmenari.

Hau da nire txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dut, Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

